



Ahokotasuna lantzeko, honako edukiak kontuan izan behar ditugu:

1. Elkarrizketa:
 - Komunikaziorako estrategiak eta arauak: txandak errespetatu, entzun, kasu egin.
2. Ahozko testu esanguratsuak ulertzea:
 - Testuaren zentzu globala.
 - Informazio inportanteak eta garrantzi gabekoak ezagutzea.
 - Hiztegia aberastea.
3. Ahozko testuak produzitzea:
 - Egoera edo esperientzi pertsonalak azaltzea.
 - Iritziak ematea eta errespetatzea.
 - Pertsona, animalia edo gauzen deskribapen errazak egitea, modu argi eta ordenatuan.
 - Zerrendak egitea.
 - Informazioa eskatu eta ematea galde-erantzunen bidez.
 - Informazio eta azalpen laburrak jendaurrean esatea honako galdegai hauek kontuan harturik: NORI, NOIZ, NON, ZER, NOLA,...
 - Kortesiako eta giza harremanetarako formulak: agurrak, mesedeak, eskerrak,...
4. Testu hauek entzutea, ikastea eta erreproduzitzea orainaldiko, iraganaldiko eta geroaldiko aditz formarik erabilienak zuzen erabiliz.
 - Olerkiak.
 - Ipuinak
 - Asmakizunak.
 - Aho-korapiloak.
 - Kantuak.
 - Leloak.
 - Esaera zaharrak.
5. Adinari egokitutako testuak antzeztea.
6. Euskararen lagunarteko esaldiak erabiltzea: "Bai, zera!", "Kitto!", "Hor konpon!", "Noski!".
7. Komunikaziorako gaitasuna lortu egoera ezberdinetan:
 - Berezkoetan edo gidatuetan.
 - Solaskide ezagunekin.
 - Testuinguru hurbiletan.
 - Talde txikitan eta handitan.